

## MERKATUAREN - SEGMENTAZIOA

Gure baserri etxera edonor etorri daiteke, haurrak zein adinduak, nerabeak zein helduak, gizonak zein emakumeak. Baserriko giroa arnastu edota naturan bizi nahi duen edonor etortzera animatzen dugu.



Bezeroekin harremana etengabekoa izango da, heltzen direnetik joaten direnen arte, beraiekin etengabe egongo gara. Ezinbestekoa iruditzen zaigulako bezeroekin harreman ona izatea eta beraiekin denbora pasatzea.

Egunero ikusten ditugu baserriak, animaliz beteta, ortua tomatez beteta, baserritar asko ere ikusten ditugu. Baina bizi al duzu inoiz horrelako esperientziarik? Gure baserri etxean horrelako ekintzak egitera gonbidatzen zaituztegu: animaliekin denbora pasatzera, ortuan aritzera, baserriko kultura ezagutzera...

Baserrietara joateko ohitura galtzen ari da gero eta gehiago, nekazaritza zein abeltzaintza gaur egun ez dira hainbeste ematen. Horregatik erabaki dugu Baserri etxea sortzea, ohitura hauek berpizteko, baserriaren garrantzia transmititzeko, kontzeptu berriak ezagutzeko eta naturaz inguraturik egoteko.